

SINESGAIAK

1842ko udaberrian, Joseph Smith Profetak gutun bat bidali zion John Wentworthi, *Chicago Democrat* zeritzan egunkariaren editoreari. Gutun hark Elizaren hasierako gertakari askoren argibideak zeuzkan, eta Azken Egunetako Santuen sinesteak laburtzen zituzten hamahiru adierazpen. Adierazpen haiei Sinesgaiak deitu zitzaizkien, eta behean ematen dira.

Sinesgaiak Elizaren doktrina ofizial dira eta Elizaren idatzien ataltzat kanonizatuak izan dira. Sinesmen adierazpen garbiak dira, eta laguntzen diete eliztarrei Elizaren oinarritzko sinesteak ulertzen eta sineste horiek beste batzuei azaltzen. Ez dira, haatik, Elizaren doktrinaren laburpen osoa. Izan ere, profeta bizien bitartez, Elizari etengabeko agerpen eta inspirazio bidez erakusten zaio bidea.

- 1 Sinesten dugu Jainko Aita Betierekoarengan, eta Haren Seme Jesu Kristorengan, eta Izpiritu Santuarengan.
- 2 Sinesten dugu pertsonak beren bekatuengatik izango direla zigortuak, eta ez Adamek hautsi zuen aginduagatik.
- 3 Sinesten dugu Kristoren ordaintzaren bitartez gizadi osoa salba daitekeela, Ebanjelioko legeei eta ordenantzei obedituz.
- 4 Sinesten dugu Ebanjelioko lehen oinarriak eta ordenantzak hauek direla: lehenengoa, Jesu Kristo gure Jaunarengan Fedea izatea; bigarrena, Damutzea; hirugarrena, murgiltzezko Bataioa, bekatuen barkamenerako; laugarrena, Eskuak ezartzea, Izpiritu Santuaren dohaina emateko.

- 5** Sinesten dugu pertsonak Jainkoaren deia jaso behar duela, profeziaren bidez, eta aginpidea dutenen esku-ezartzearen bidez, Ebanjelioa predikatzeko eta haren ordenantzak betetzeko.
- 6** Sinesten dugu Hasierako Elizan izan zen antolamendu berean, hau da, apostoluak, profetak, arimazainak, maisuak, ebanjelariak, etab.
- 7** Sinesten dugu hizkuntzen, profeziaren, agerpenaren, ikuspenen, sendamena-
ren, hizkuntzen interpretazioaren, eta abarren dohaineen.
- 8** Sinesten dugu Biblia Jainkoaren hitza dela, zuzen itzulita dagoeneraino; sinesten dugu Mormonen Liburua ere Jainkoaren hitza dela.
- 9** Sinesten dugu Jainkoak agertu duen oro, Hark orain agertzen duen oro, eta sinesten dugu Hark oraindik ere Jainkoaren Erreinuari dagozkion gauza handi eta garrantzitsu asko agertuko dituela.
- 10** Sinesten dugu Israelen benetako birbatzean eta Hamar Leinuen berrera-
tzean; Sion (Jerusalem Berria) amerikar kontinentean berreraikiko dela; Kristok berak erreinatuko duela lurreen; eta lurrak berritze bat izango duela eta bere paradisuazko aintza jasoko.
- 11** Eskatzen dugu Jainko Guztiahalduna geure kontzientziak dioskun eran gurtzeko eskubidea; eta eskubide bera uzten diegu pertsona guztiei, gur dezatela zernahi, non-nahi eta zelan-nahi.
- 12** Sinesten dugu erregeen, lehendakarien, agintarien eta magistratuen men-
dean egotean; legeari obeditzean, ohore egitean eta eustean.
- 13** Sinesten dugu zintzo, egiati, kastu, onbera, bertutetsu eta guztientzat ongile izatean; bai, esan dezakegu Pauloren aholkuari jarraitzen diogula – Dena sinesten dugu, dena espero dugu, gauza asko jasan dugu, eta dena jasateko gai izatea espero dugu. Inon ezer bertutetsurik, ederrik, izen oneko edo gores-garririk bada, haren bila gabiltza.

Joseph Smith